

Call for Papers

Cristóbal Balenciaga Nazioarteko II. Biltzarra

Getaria, 2025eko urria

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

CRB

Cristóbal Balenciaga Fundazioak, Cristóbal Balenciagari eta haren lanari buruzko ikerketa sustatzeko, helburu nagusi duen aldetik, jostunari buruzko Nazioarteko Biltzarraren bigarren edizioa antolatu du, eta urriaren 1etik 3ra izango da Getariako Cristóbal Balenciaga Museoan.

Biltzarraren bigarren edizio honetan, lehenengoan egindako lorpenak finkatu eta hobetu nahi dira. Hain zuzen, aurrekoan, Cristóbal Balenciagari buruzko 13 ikerketa berritzaile aurkeztu ziren, mundu osotik bidalitako 40 proposamen baino gehiagoren artean aukeratu ondoren.

| | |
|--------------------|---|
| Lan-eremuak | Bigarren edizio honen azterketa-eremuak ezagutzeko laguntza-gida bat gehitu diegu oinarri hauei. |
| Argitalpena | Museoak bere webgunean argitaratuko ditu aukeratutako lan guztiak, eta ikerketa onenen aukeraketa bat aldizkari akademiko batean argitaratzeko lan egingo du. |
| Zientzia Batzordea | Miren Arzalluz (Palais Galliera, Paris) Ana Balda (Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea) Emily Brayshaw (University of Technology, Sydney) Karena de Perthuis (Western Sydney University) Sophie Kurkdjian (American University, Paris) Lesley E. Miller (University of Glasgow) Carlos Naya (Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea) Alexandra Palmer (Royal Ontario Museum) Elisa Palomino (Smithsonian National Museum of Natural History, Washington D. C.) Veronique Pouillard (University of Oslo) Giorgio Riello (European University Institute, Florence) Simona Maria Segre Reinach (University of Bologna) Valerie Steele (Fashion Institute of Technology, New York) Igor Uria (Cristóbal Balenciaga Museoa, Getaria) |
| Hizkuntza | Gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz idatzitako komunikazioak onartuko dira. |

Proposamenak aurkezteko jarraibideak

Proposamenak congress@fbalenciaga.com helbide elektronikora bidali behar dira, eta bi dokumentu izan behar dituzte:

- Laburpena: dokumentu honetan izenburua eta 500 hitz baino gutxiagoko laburpena jasoko dira (Times New Roman 12 letra erabiliz). Laburpenean, azterlanaren xedea eta oinarri hartu diren iturri bibliografiko edo dokumental nagusiak azalduko dira. Hautaketa-prozesuaren anonimotasuna bermatzeko, dokumentuak ez du jasoko lanaren egileari edo egileei buruzko aipamenik. Word formatuan bidaliko da, eta fitxategiak eta azterlanak izenburu berbera izango dute.
- Ikertzaileari buruzko informazioa: dokumentu honetan, ikertzailearen edo ikertzaileen izena, posta elektronikoa eta bakoitzaren curriculum laburra jaso behar dira (10 lerro, Times New Roman 12 letra erabiliz). Word formatuan bidaliko da, eta fitxategiaren izenean egilearen izen-abizenak jasoko dira. Egile bat baino gehiago badaude, fitxategiaren izenean lehen egilearen izen-abizenak eta egile-kopurua jasoko dira.

Calendario

Proposamenak aurkezteko azken eguna
2024ko irailak 20

Onarpenaren erantzuna jasotzeko azken eguna
2024ko urriak 18

Adierazitako epeak igaro ondoren, kontuan hartu beharreko hurrengo datak eta Biltzarrari buruzko beste xehetasun interesgarri batzuk jakinaraziko zaizkie hautatuei.

Izen-ematea

Komunikazio bat aurkezten duten parte-hartzaileek doan eman ahalko dute izena.

Informazioa

Cristóbal Balenciaga Museoa
Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
congress@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

